



Adminiztrazioko ofizialaren azterketa

**1. Herri Kontuen Euskal Epaitegia, erakundea den aldetik, ondorengo honen mende dago:**

- a) Botere judiziala.
- b) Estatuko Kontuen Auzitegia.
- c) Eusko Legebiltzarra.
- d) Foru aldundiak.

**2. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, bere eginkizunak betez, ahalmen hauek ditu:**

- a) Euskadiko sektore publikoaren kudeaketari buruzko espediente, dokumentu, datu, aurrekari eta txosten guztiak eskuratzea.
- b) Beharrezkotzat jotzen dituen idazki, txosten edo azalpen guztiak emateko exijitzea.
- c) Eskudiruzko izakinei, baloreei, salgaiei eta abarri buruz beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egitea.
- d) Baieztapen guztiak zuzenak dira.

**3. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen arabera, «obra kontratua» delakoari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da egiazkoa?**

- a) Obra kontratu baten bidez, botere esleitzaille batek edo batzuek kostu bidez pertsona baten edo batzuen esku uzten dutenean zerbitzu baten kudeaketa, zerbitzu hori bere titulartasunekoa edo eskumenekoa denean, eta zerbitzu horren kontrapartida kontratuaren xede diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea edo eskubide hori eta prezio bat jasotzeko eskubidea denean.
- b) Kontratu horretan, «obra» esaten denean, eraikuntzako edo ingeniariaritzako zibileko lan multzo baten emaitza esan nahi da, ondasun higiezin bat xede duen eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko egiten dena.
- c) Obra oso bat egitea xede duen kontratua da, eta obra partzialak ez dira kontuan hartuko.
- d) Baieztapen guztiak zuzenak dira.

**4. Euskadiko osasun sistemaren azken helburua da:**

- a) Osasuna sustatzea, bai eta herritarren artean diagnostiko eta tratamendu egokiak egitea ere.
- b) Biztanleriaren osasun-maila mantentzea, berreskuratzea eta hobetzea.
- c) Biztanleriaren osasun-maila egokiak mantentzea eta babestea.
- d) Herritarren osasunaren prebentzioa.

**5. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, obra emakidako kontratuaren xedea da emakidadunak obra kontratuan aipatzen diren prestazioetako batzuk egitea:**

- a) Kanpoan geratuko dira eraikitako elementuen kontserbazioa eta mantentzea, salbu eta lehendik dauden eraikuntzak zaharberritu eta konpontzeko badira.
- b) Kanpoan geratzen dira lehendik dauden eraikuntzak zaharberritzeko eta konpontzeko lanak, bai eta eraikitako elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak ere.
- c) Barne hartzen dira lehendik dauden eraikuntzak zaharberritzeko eta konpontzeko lanak, bai eta eraikitako elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak ere.
- d) Barne hartzen dira lehendik dauden eraikuntzak zaharberritzeko eta konpontzeko lanak, salbu eta eraikitako elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak.

**6. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, obra kontratuak eta obra emakidako kontratuak erregulazio harmonizatuaren mende egoteko atalasea honako hau izango da:**

- a) 750.000 €.
- b) 2.385.000 €.
- c) 3.582.000 €.
- d) 5.382.000 €.

**7. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen arabera, kontratu jakin batzuei aplikatu beharreko arau bereziak alde batera utzi gabe, kontratuen iraupen epea eta prestazioa emateko epea honako hauek kontuan hartuta ezarri beharko da:**

- a) Prestazioen izaera.
- b) Finantzaketaren ezaugarriak.
- c) Aldian-aldean jarduera horiek lehiaketara atera beharra.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**8. OSATEKEN Hitzarmen Kolektiboaren 8. artikulua arabera, ordainsari aldakorrean jasotzen diren osagarri guztiak honako hauek dira:**

- a) Produktibitatea.
- b) Urteko ekoizpena eta lanpostua.
- c) Txandakako lana, jaieguna eta asteburua, eta gaueko lana.
- d) a, b eta c idatz-zatietako osagarri guztiak ordainsari aldakorraren osagarriak dira.

**9. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, zerk arautzen ditu Administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailerik egindako kontratuen ondorioak eta azkentzea?**

- a) Zuzenbide publikoko eta pribatuko arauak.
- b) Zuzenbide pribatuko arauak.
- c) Zuzenbide publikoko arauak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**10. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, kontratuen eta prestazioa gauzatzearen iraupen epeari eta luzapenei dagokienez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

- a) Kontratu txikiak (40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura edo zerbitzu kontratuak direnean, era berean kontuan hartu behariko delarik estatu eremuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoa) ezin izango dute urtebetetik gorako iraupena izan, eta ezin izango dira luzatu.
- b) Kontratuak luzapen bat edo batzuk aurreikusi ahal izango ditu, baldin kontratuaren ezaugarriak ez badira aldatzen kontratuak irauten duen bitartean, eta alderdien isilbidezko adostasunarekin erabakiko da.
- c) Ondasun higigarrien errentamendu kontratuen iraupena ezin izango da bost urtetik gorakoa izan; eta, kontratazio organoak erabakitzen dituen luzapenekin, gehienez ere 10 urtekoa izan daiteke.
- d) Ondoz ondoko hornidura eta zerbitzu kontratuak gehienez ere bost urteko iraupena izango dute lehen kontraturako; eta, kontratazio organoak erabakitzen dituen luzapenekin, ente kontratatzaileari aplikatzekoak zaizkion aurrekontu arauetan ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuz, gehienez ere 10 urtera irits daiteke.

**11. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, obra, hornidura eta zerbitzu kontratuen balio zenbatetsia kontratazio organoak zehaztuko du. Balio zenbatetsi hori zehazteko,**

- a) bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du (Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne).
- b) bere zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du (Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe).
- c) enpresa emakidadunak proiektua gauzatzean sortuko duen negozio zifraren zenbateko garbiaren zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du (Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne).
- d) enpresa emakidadunak proiektua gauzatzean sortuko duen negozio zifraren zenbateko garbiaren zenbatespenen arabera ordaintzekoa den zenbateko osoa hartuko du (Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe).

**12. Hornidura katea kudeatzeko teknikak. *Cross docking* delakoa. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Honetan datza: bezero edo erabiltzaile askok paletak eta edukiontziak partekatzen dituzte, eta ontziratze eta paketatze sistemetan egiten duten inbertsioa murriztea erabakitzen duten eta beren negozio nukleoan kontzentratu nahi duten konpainientzako soluzio komertzial estrategiko bihurtzen da.
- b) Banaketa kanaletan agertzen den eskariaren aurreikuspenetan ikusitako fenomeno bat da.
- c) Fabrikazioan, kontzeptu horri kanban esaten zaio.
- d) Eskaera prestatzeko mota bat da (biltegi logistikoaren funtzioetako bat), stockean salgaiarik jarri gabe eta picking eragiketarik gabe.

**13. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen arabera, beharrezkoa izango da erakunde kontratatzailea atxikita dagoen edo haren tutoretza duen ministerio sailaren edo autonomia edo toki administrazioko organoaren baimena, kontratuaren aldaketa administrazio klausula partikularren agirian aurreikusita ez dagoenean, baldin kontratuaren zenbatekoa honako hau bada:**

- a) 6.000.000 euro edo gehiago, eta aldaketaren zenbatekoa, bakarka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 baino handiagoa bada, BEZik gabe.
- b) 6.000.000 euro edo gehiago, eta aldaketaren zenbatekoa, bakarka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 baino handiagoa bada, BEZa barne.
- c) 5.000.000 euro edo gehiago, eta aldaketaren zenbatekoa, bakarka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren % 15 baino handiagoa bada, BEZik gabe.
- d) 5.000.000 euro edo gehiago, eta aldaketaren zenbatekoa, bakarka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren % 15 baino handiagoa bada, BEZa barne.

**14. Goi Mailako Osasun Teknologia, S.A. sozietatea sortzeko Dekretuaren 6. artikulua arabera, sozietatearen kapital osoa ondokoek jarri dute:**

- a) Eusko Jaurlaritzak.
- b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak.
- c) Osasun Sailak.
- d) Ogasun Sailak.

**15. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, autonomia erkidegoek kontratazio publikoaren arloan sortzen dituzten kontsulta organoek (betiere kontuan hartuta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eskumenak)**

- a) beren lurralde eremuan baliatuko dute beren eskumena, autonomia erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen eta sektore horretan sartutako toki erakundeen kontratazioari dagokionez.
- b) beren lurralde eremuan baliatuko dute beren eskumena, autonomia erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen eta sektore horretan sartutako toki erakundeen kontratazioari dagokionez, baldin toki administrazioekin akordiorik badago.
- c) beren lurralde eremuan baliatuko dute beren eskumena, autonomia erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontratazioari dagokionez, eta, hala ezartzen bada haien arauetan, sektore publiko horretan sartutako toki erakundeen kontratazioari dagokionez.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**16. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea:**

- a) Legea behar bezala aplikatzen dela zaintzeko eta, bereziki, lehia sustatzeko eta kontratazio publikoari dagokionez legez kontrakotasunei aurre egiteko sortutako kide anitzeko organoa da.
- b) Presidenteak eta lau kidek osatutako organo presidentziala da, eta independentzia organiko eta funtzional osoa du.
- c) Ebaluazioko Bulego Nazionalean integratzen da.
- d) Bulego horretako presidentea eta gainerako kideak bost urterako izendatuko dira, eta epe hori ezin izango da luzatu.

**17. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Xedea. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Lege horren xedea da jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzea eta bermatzea, eta arduradun publikoek bete behar dituzten gobernu onaren betebeharrak ezartzea, bai eta betebeharrak horiek ez betetzearen ondorioak ere.
- b) Lege horren xedea da jarduera ez publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzea eta bermatzea, eta merkataritza enpresetako arduradunek bete behar dituzten gobernu onaren betebeharrak ezartzea.
- c) Lege horren xedea da jarduera publikoaren gardentasuna mugatzea, eta arduradun guztiek —publiko zein merkataritzakoek— bete beharreko gobernu onaren informaziorako sarbidearen erabilera eta abusua zigortzea.
- d) Lege horren xedea da jarduera ez publikoaren gardentasuna mugatzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzea eta bermatzea, eta merkataritza enpresetako arduradunek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea.

**18. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. titulua: Jarduera publikoaren gardentasuna. I. kapitulua: Aplikazio eremu subjektiboa. Titulu horretako xedapenak EZ zaizkie aplikatuko honako hauei:**

- a) Estatuko Administrazio orokorrari, autonomia erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako administrazioei, eta toki administrazioa osatzen duten erakundeei.
- b) Irabazi asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak diren kirol sozietate anonimoei eta elkarte pribatuei, pertsona fisiko edo juridikoek osatuak, baldin helburutzat kirol modalitate bat edo batzuk sustatzea edo praktikatzea badute, berdin diolarik ea lehiaketa ofizial publikoetan parte hartzen duten edo ez.
- c) Zuzenbide publikoko korporazioei, administrazio zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.
- d) Errege Etxeari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari, Konstituzio Auzitegiari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, bai eta Espainiako Bankuari, Estatu Kontseiluari, Herriaren Defendatzaileari, Kontu Auzitegiari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eta antzeko erakunde autonomikoei ere, administrazio zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.

**19. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. titulua: Jarduera publikoaren gardentasuna. II. kapitulua: Publizitate aktiboa. Printzipio orokorrak. Adieraz ezazu erantzun okerra:**

- a) Lege honen eraginpeko subjektuek aldian-aldian eta eguneratuta argitaratuko dute jarduera publikoaren funtzionamenduari eta kontrolari lotutako jardueraren gardentasuna bermatzeko garrantzitsua den informazioa.
- b) Gardentasun betebeharren mendeko informazioa dagozkion egoitza elektronikoetan edo web orrietan argitaratuko da, modu argian, egituratuan eta interesdunek ulertzeko moduan, eta, ahal dela, formatu berrerabilgarrietan.
- c) Ez da beharrezkoa izango argitaratutako informazioaren irisgarritasuna, elkarreragingarritasuna, kalitatea eta berrerabilpena errazteko mekanismoak ezartzea, dagoeneko gardena den informazioa baita.
- d) Kapitulu horretan jasotako gardentasun betebeharrak ez dute eragozten dagokion araudi autonomikoa edo publizitatearen arloan araubide zabalagoa aurreikusten duten beste xedapen espezifiko batzuk aplikatzea.

**20. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. titulua: Jarduera publikoaren gardentasuna. II. kapitulua: Publizitate aktiboa. Estatuko Administrazio Orokorrak kapitulu honetan jasotako betebeharrak betetzen dituela nork kontrolatuko du? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.
- b) Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak.
- c) Autonomiako kanpo kontroleko organoak.
- d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.

**21. Historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen eskubide eta obligazioei buruzko 38/2012 Dekretuaren 28.5 artikulua arabera, borondatezko altak ezaugarri hau(ek) izango d(it)u:**

- a) Interesdunak irakurtzeko moduan sinatu beharko du.
- b) Interesdunaren NAN zenbakia izango du.
- c) Medikuen sinadura eta dokumentua sinatu den eguna eta ordua izango ditu.
- d) a, b eta c atalak zuzenak dira.

**22. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Printzipio Arautzaileen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, haren erakunde autonomoek edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoek jaso beharreko zenbatekoak, erakunde horiek sustapen edo interes publikorako beste pertsona publiko edo pribatu batzuei emandako mailegu eta bermeei buruzko kontratuen ondoriozkoak direnak, honela sailkatzen dira:**

- a) Lurralde historikoen ekarpenak.
- b) Zuzenbide pribatuko diru sarrerak.
- c) Zuzenbide publikoko diru sarrerak.
- d) Tributua.

**23. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen arabera, nola zehazten da zorpetzearen diru sarrera?**

- a) Autonomia erkidegoko administrazioak eta erakunde autonomiadunek egindako kreditu eta mailegu operazioen emaitzak eta entitate horiek jaulkitako zor publikoaren emaitzak.
- b) Autonomia erkidegoak emandako dirulaguntzen zenbatekoak, baldin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, haren erakunde autonomoei edo Administrazio instituzionala osatzen duten zuzenbide pribatuko erakunde publikoei itzuli behar bazaizkie, dirulaguntza horien xedea edo baldintzak ez betetzeagatik.
- c) Autonomia erkidegoak herri lanak egitearen edo zerbitzu publikoak ezarri edo zabaltzearen ondorioz zergapekoak bere ondasunen onura edo balio gehikuntza lortzeagatik ezartzen diren kontribuzio bereziak.
- d) Zuzenbide publikoko diru sarrerei dagozkien interesak.

**24. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen arabera, Legebiltzarrari dagokio:**

- a) Autonomia erkidegoaren berezko tributuak ezartzea edo aldatzea.
- b) Aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura.
- c) Euskadiko Aurrekontu Orokorrak onartzea, haien jarraipena egitea eta kontrolatzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**25. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Printzipio Arautzaileen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta erakunde autonomiadunek edonolako obligazioak onartu edo kitatzeko eskubideak, ez baldin bada eskatu onar edo kitatu dezala horretarako dauden baldintza guztiak beteta, eta ez badira kasuan kasuko agiri justifikatzaileak aurkeztu, noiz preskribatuko du?**

- a) Jakinarazpena urteko bigarren seihilekoan egiten bada, uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, igarotako laugarren urteko abenduaren 31n preskribatuko du.
- b) Jakinarazpena urteko bigarren seihilekoan egiten bada, uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, igarotako bosgarren urteko abenduaren 31n preskribatuko du.
- c) Lau urtera preskribatuko du.
- d) Bost urtera preskribatuko du.

**26. Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubide eta Betebeharrei buruzko Aderazpenari buruzko 147/2015 Dekretuaren 2. artikuluaaren arabera, nor dira dekretuan jasotako eskubide eta betebeharren titularrak?**

- a) Estatuko osasun-sistemak ematen dituen osasun-prestazioak eta -zerbitzuak eskuratzen edo erabiltzen dituzten pertsona guztiak.
- b) Autonomia-erkidegoetako osasun-sistemak ematen dituen osasun-prestazioak eta -zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona guztiak.
- c) Euskadiko osasun-sistemak ematen dituen prestazio eta zerbitzu sanitarioak eskuratzen edo erabiltzen dituzten pertsona guztiak.
- d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**27. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera, honako hauek dira Euskadiko Aurrekontu Orokorrak:**

- a) Arlo horretan zuzenbide publikoaren eta pribatuaren pean dauden autonomia erkidegoko erakundeen zorpetzea.
- b) Arlo horretan zuzenbide pribatuaren pean dauden autonomia erkidegoko erakundeengandiko berme-emateak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten erakundeetako aurrekontuak, sarrera eta gastuen dena delako egoera orriekin osatuta daudenak; eta Gizarte Segurantzako ekonomia errejimena kudeatzeko aurrekontuak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.



**28. 1/2011 Legegintzako Dekretuari jarraikiz (Euskadiko aurrekontu araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea), adieraz ezazu BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DEN GEZURREZKOA Euskadiko Aurrekontu Orokorrei dagokienez:**

- a) Finantza orekaren irizpidea aplikatuz, aurrekontuak finantza oreka irizpide dela prestatuko dira, aurrekontu bakoitzean diru sarreren guztizkoak gastuena berdintzeko moduan, salbu eta ekitaldi ekonomiko bat baino gehiago hartzen dituzten partidak daudenean; kasu horretan, gauzatzeagatiko aintzatespena ere aplikatuko da.
- b) Unibertsaltasun printzipioa aplikatuz, likidatzekoak diren eskubide guzti-guztiak eta erantzutekoak diren obligazio guzti-guztiak sartuta daude Aurrekontu Orokorretan.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako bakoitzari dagozkion aurrekontuek osatzen dituzte.
- d) Luzatzeko aukera alde batera utzi gabe, urtebeteko iraupeneko ekitaldi ekonomiko batera luzatuko dira. Ekitaldi hori urte naturalarekin bat etorriko da.

**29. 1/2011 Legegintzako Dekretuari jarraikiz (Euskadiko aurrekontu araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea), Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, administrazio organismo autonomoen eta autonomia erkidegoko sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetan honako hauek jaso beharko dira:**

- a) Ekitaldian likidatu beharreko kreditu ekonomikoak jasotzen dituen gastuen egoera orria.
- b) Ekitaldian ordaindu beharreko kreditu ekonomikoak jasotzen dituen gastuen egoera orria.
- c) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoak jasotzen dituen diru sarreren egoera orria.
- d) Ekitaldian kobratu beharreko eskubide ekonomikoak jasotzen dituen diru sarreren egoera orria.

**30. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Printzipio Arautzaileen arabera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribigarriak dira; eta, preskripzio epeak zehazteko, bete beharrekoak izango dira eskubide horietako bakoitzari zuzen-zuzenean edo zeharka espezifikoki ezar dakizkiokeen xedapenak. Ildo horretan:**

- a) Bost urteren buruan preskribituko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek beren alde eskubide publikoak aitortzeko edo kitatzeko eskubideak, eskubidea baliatu ahal izan zen egunetik.
- b) Lau urteren buruan preskribituko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek beren alde eskubide publikoak aitortzeko edo kitatzeko eskubideak, eskubidea baliatu ahal izan zen egunetik.
- c) Bost urteren buruan preskribituko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek beren alde eskubide publikoak aitortzeko edo kitatzeko eskubideak, haien kitapena aitortu zen egunetik.
- d) Lau urteren buruan preskribituko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek beren alde eskubide publikoak aitortzeko edo kitatzeko eskubideak, haien kitapena aitortu zen egunetik.

**31. 1/2011 Legegintzako Dekretuari jarraikiz (Euskadiko aurrekontu araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea), adieraz ezazu zer diren kreditu zabalgarriak:**

- a) Zor publikoaren interesak eta amortizazioa ordaintzeko ordainketa kredituak. Kreditu horiek zabalgarritzat joko dira, baldin dagozkien aurrekontuetako gastuen egoera orrian sartuta badaude, eta Jaurlearitzak aldatu ahal izango ditu, aurrekontu gaietan eskumena duen sailak proposatuta.
- b) Ordainketa kredituak zabalgarritzat joko dira, baldin hasiera batean mugadunak izan arren haien zenbatekoa handitu badaiteke, ezarrita dauden edo ezarriko diren arauzko formalitateak bete ondoren.
- c) Dagozkien aurrekontuetako gastuen egoera orrietan jasotako langile gastuetarako ordainketa kredituak, zabalgarriak izango direnak, bai kredituaren zenbatekoari dagokionez, bai plantillari dagokionez.
- d) Aurreko baieztapen guztiak okerrak dira.

**32. 1/2011 Legegintzako Dekretuari jarraikiz (Euskadiko aurrekontu araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea), diru sarreraren egoera orriak jasotzen duen «zergak eta gainordainak» kontzeptuak ondorengo hauek ditu aipagai:**

- a) Ente bakoitzak zorpetzearen bidez lortzea aurreikusi duen baliabideen zerga propioak.
- b) Berezko zergak eta Autonomia Erkidegoak Estatuko Aurrekontu Orokorraren kontura jasotzen dituen esleipenen gainordainak.
- c) Zerga propioak eta, hala badagokio, autonomia erkidegoak ezar ditzakeen zergen gaineko gainordainak.
- d) Autonomia erkidegoko merkataritza organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek eta sektore publikoko fundazioek edozein erakunde edo pertsonarengandik jasotzen dituzten gainordain arruntak.

**33. Kontabilitate orokorra. Kontzeptu esparrua. Adieraz ezazu erantzun okerra:**

- a) Urteko kontuetako informazioaren helburua eta helburu horretara iristeko metodoa ezartzen ditu.
- b) Ezartzen du eragiketen kontabilitatean errealitate ekonomikoa hartuko dela kontuan, eta ez forma juridikoa soilik.
- c) Urteko kontuak egiteko arauak eta horien eredu ofizialak ezartzen ditu, hala arruntak nola laburtuak.
- d) Kontabilitate informazioak izan behar dituen baldintzak ezartzen ditu.

**34. Kontabilitate orokorra. Urteko kontuak. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Inbentarioen liburua eta eguneroko liburua enpresa baten urteko kontuen parte dira.
- b) Urteko kontuak nahitaezkoak dira enpresa guztientzat, haien forma juridikoa, banakakoa edo sozietate forma edozein dela ere.
- c) Urteko kontuak izan behar duten informazio maila (zabala edo zehatza) berbera da enpresa guztientzat.
- d) Pertsona fisiko diren profesionalek —sozietatea eratu ez dutenek— urteko kontuak egin behar dituzte.

**35. Kontabilitate Plan Orokorra osasun laguntzako enpresetara egokitzeko arauak nahitaez aplikatu beharrekoak dituzte ondorengo hauek:**

- a) Enpresa guztiek, edozein forma juridiko dutela ere, baldin merkataritzakoak badira eta beren jardueretako batzuk osasunekoak badira.
- b) Eremu publikoan jarduten duten eta osasun jarduera egiten duten enpresa guztiek.
- c) Osasun jarduera egiten duten enpresa guztiek, edozein dela ere haien forma juridikoa, banakakoa edo sozietate forma.
- d) Administrazio publikoak kapitalean gutxienez 100eko 50eko partaidetza duen enpresa guztiek, edozein dela ere haien forma juridikoa.

**36. Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Agindua, 1996ko abenduaren 23koa, Kontabilitate Plan Orokorra osasun laguntzako enpresei egokitzeko arauak onartzen dituena. Kontabilitate definizioak eta erlazioak. «Izakinak» izeneko 3. multzoan, honako hauek jasotzen dira:**

- a) Enpresaren jardueran modu iraunkorrean zerbitzatzera bideratutako farmazia produktuak eta osasun materiala.
- b) Ustiategiaren ohiko ibilbidean saltzeko diren produktu farmazeutikoak eta material sanitarioa, ekoizpen prozesuan daudenak edo ekoizpen prozesuan edo zerbitzuak ematean kontsumitzeko material edo hornidura moduan daudenak.
- c) Farmazia produktuak, kontsumoko osasun materiala, tresneria eta lanabes txikiak, elikagaiak, jantziak, arropa zuria, oinetakoak eta bestelako hornidurak.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**37. Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Agindua, 1996ko abenduaren 23koa, Kontabilitate Plan Orokorra osasun laguntzako enpresei egokitzeko arauak onartzen dituena. Kontabilitate definizioak eta erlazioak. «Erosketak eta gastuak» izeneko 6. multzoan, honako hauek jasotzen dira:**

- a) Farmazia produktuen eta osasun laguntza emateko beharrezkoak diren gainerako ondasunen hornidura.
- b) Ekitaldiko gastu guztiak, zerbitzuen eta material kontsumigarrien erosketak barne.
- c) Ekitaldian izandako eskuratutako izakinen aldakuntza eta aparteko galerak.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**38. Kontabilitateko egoera orrien analisia. Kontabilitate informazioa. Kontabilitateko egoera orrien analisiarekin, kontabilitateko egoera orrietan eta izaera osagarria duten beste batzuetan jasotako datuetatik abiatuta, zer lortu nahi da? Adieraz ezazu erantzun okerra:**

- a) Enpresa sakon ezagutzea.
- b) Enpresaren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi fidela lortzea.
- c) Etorkizuna zehaztasunez aurreikustea, eta analisisian behin betiko ondorioak lortzea.
- d) Enpresaren etorkizuneko portaerari buruzko iragarpenak egin ahal izatea, bai eta aurretik egindako ebaluazioak berretsi edo zuzendu ahal izatea ere.

**39. Kontabilitateko egoera orrien analisia. Egoera balantzea. Balantze ereduak. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Lau balantze eredu daude: arrunta, laburtua, enpresa txiki eta ertainen Kontabilitate Plan Orokorrarena, eta mikroenpresena.
- b) Hiru balantze eredu daude: arrunta, laburtua, eta enpresa txiki eta ertainen Kontabilitate Plan Orokorrarena.
- c) Hiru balantze eredu daude: arrunta, laburtua eta mikroenpresena.
- d) Lau balantze eredu daude: talde bateratuena, arrunta, laburtua eta mikroenpresena.

**40. Kontabilitateko egoera orrien analisia. Galdu-irabazien kontua. Zein dira galdu-irabazien kontuaren edukia ulertzeko berebiziko garrantzia duten kontabilitateko bi printzipioak? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Gastuen eta diru sarreraren korrelazioaren printzipioa eta zuhurtasun printzipioa.
- b) Gastuen eta diru sarreraren korrelazioaren printzipioa eta sortzapenaren printzipioa.
- c) Zuhurtasun printzipioa eta funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa.
- d) Sortzapenaren printzipioa eta funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa.

**41. Kontabilitateko egoera orrien analisia. Kontabilitateko egoera orriak analisirako prestatzea. Zein da aktibo korrontearen sailkapen funtzionala, analisiaren ondorioetarako? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Baldintzatuta bihurtgarria, ziur bihurtgarria, periodifikazioak eta erabilgarria.
- b) Baldintzatuta bihurtgarria, ziur bihurtgarria eta erabilgarria.
- c) Baldintzarik gabe bihurtgarria, ziur bihurtgarria eta erabilgarria.
- d) Ziur bihurtgarria, periodifikazioak eta erabilgarria.

**42. 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. Kontabilitatea. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Kontabilitatea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrekontu, finantza, ondare eta diruzaintzari buruzko informazioa ematen duen tresna edo sistema da.
- b) Kontabilitatearen xedea izango da atxikitako erakunde bakoitzaren ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontu-egoeraren eta emaitzen irudi fidagarria ematea, dokumentuen, kontuen, liburuen eta egoeren bidez.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak egindako ekintza eta eragiketa ekonomiko guztiak, kasuan kasuko erakundearen kontabilitatean jaso beharko dira.
- d) Baieztapen guztiak zuzenak dira.

**43. 464/1995 Dekretua, 1995eko urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen, eta haren ondorengo aldaketak Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola, kontu ikuskaritzako tekniken bidez kontrolatutako subjektuaren jarduera gerora berrikuskatuz egingo da. Ditu zen helburuen arabera, ikuskaritzak mota hauetakoak izan daitezke: kudeaketa ikuskaritza; finantza ikuskaritza; aurrekontua betetzeari buruzko eta legezketasunari buruzko ikuskaritza; eta prozedurak eta barne kontrola berrikuskatzeko ikuskaritza.
- b) Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola, kontu ikuskaritzako tekniken bidez kontrolatutako subjektuaren jarduera gerora berrikuskatuz egingo da. Ditu zen helburuen arabera, ikuskaritzak mota hauetakoak izan daitezke: kanpo auditoretza, barne auditoretza eta finantza auditoretza.
- c) Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola, kontu ikuskaritzako tekniken bidez kontrolatutako subjektuaren jarduera gerora berrikuskatuz egingo da. Ditu zen helburuen arabera, ikuskaritzak mota hauetakoak izan daitezke: finantza ikuskaritza; barne ikuskaritza; eta aurrekontua betetzeari buruzko eta legezketasunari buruzko ikuskaritza.
- d) Ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola, egiaztatze eta berrikuskatze mugatuko tekniken bidez kontrolatutako subjektuaren jarduera gerora berrikuskatuz egingo da.

**44. 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. Kontrol ekonomikoa. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoa kontabilitatea kontrolatzeaz arduratuko den organoa da.
- b) Herri Kontuen Euskal Epaitegia kontabilitatea kontrolatzeaz arduratuko den organoa da.
- c) Kontrol ekonomikoko hiru modalitate daude: kontrol ekonomiko-finantzarioa, kontrol ekonomiko-fiskala eta kontrol ekonomiko-administratiboa.
- d) Kontrol ekonomikoko hiru modalitate daude: kanpo auditoretza, barne auditoretza eta finantza auditoretza.

**45. 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. Kontrol ekonomiko-normatiboa. Adieraz ezazu erantzun okerra:**

- a) Kontrol ekonomiko-normatiboaren helburua izango da fiskalizazioaren xede diren arau edo xedapen proiektuen eragin ekonomikoa ebaluatzea, bai aurrekontuan (diru sarrera eta gastu publikoetan), bai aurrekontutik kanpo.
- b) Kontrol ekonomiko-normatiboa eduki ekonomikoko egintza, egitate edo eragiketarako gertatu aurreko unean egingo da, eta, horretarako, Administrazio orokorreko, erakunde autonomoetako eta sektore publikoko partzuergoetako organoek espediente osoak bidali beharko dituzte Kontrol Ekonomikoko Bulegora, erregelamenduz ezarritako moduan.
- c) Kontrol ekonomiko-normatiboa egiteko, nahitaezko kontrol txostena egingo da, eta kontrolaren xede den araua edo xedapena horretarako eskumena duen organoak onartu aurretik egingo da, edo, hala dagokionean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsulta egin aurretik.
- d) Kontrol ekonomiko-normatiboak, alderdi ekonomiko-antolatzailean, barne hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organo eta erakunde ororen eraketaren zein ezabaketaren ikuskapena, bai eta organo eta erakunde horien aldaketen eta berregituraketaren ikuskapena ere.

**46. Kontabilitateko egoera orrien analisisa. Kaudimenaren azterketa. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Likideziak epe luzerako ikuspegia du, eta kaudimena enpresak epe laburrera jarraitzeari dagokio.
- b) Kaudimenaren analisisak enpresaren ondare egoera ebaluatzen du, bai finantzaketari dagokionez, bai inbertsioari dagokionez, haren oreka posizio globala aztertzearen.
- c) Kaudimenaren analisisak enpresaren ondare egoera ebaluatzen du, finantzaketatik abiatuta, aktibo eta pasibo arruntaren arteko oreka posizioa aztertzearen.
- d) Aurreko baieztapen guztiak okerrak dira.

**47. Hornidura katearen plangintzarako sarrera. Negozioen eta hornidura katearen logistika. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Helburua da lehia abantailak lortzea, produktu lerro berriei berrikuntza eta erantzun azkarra emango dieten negozio ereduak birdiseinatuz; eta, oro har, nahi den zerbitzu maila lortzeko kostuak minimizatzea.
- b) Globalizazioaren eta logistikaren integrazio eta zentralizazioaren fenomeno geldiezinak gutxi baldintzatutako lehia ingurune batean bizi dira ia enpresa guztiak.
- c) Merkatu berrietara sartzeko zailtasunak banaketa sareak birdiseinatzera behartzen du, eta, sarritan, ekoizpen gaitasunak birkokatzea eta erosketak kudeatzeko eredu global bat definitzera.
- d) Baieztapen guztiak zuzenak dira.

**48. Biltegiak. Banaketa biltegi bat eraiki behar dugunean, ondorengo alderdi hauek hartu behar dira kontuan... Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Kokalekua hautatzea, lokalaren zenbatekoa, kostua finantzatzeko modua, eta tamaina.
- b) Kokalekua hautatzea, lokalaren zenbatekoa, aplikatzeko den zerga araudia, eta neurriak.
- c) Kokalekua hautatzea, eraikuntza kostua, funtzionalitatea, neurriak eta forma, eta mantentzea.
- d) Kokalekua hautatzea, eraikuntza kostua, eta neurriak.

**49. Stockak kontrolatzea eta kudeatzea. Stocken kostuen motak. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Enpresak erositako materialak hiru kostu mota ditu: erosketaren kostua, stocka edukitzearen kostua, eta stocka erostean kostua.
- b) Enpresak erositako materialak bi kostu mota ditu: stockaren kostu aldakorak eta stockaren kostu finkoak.
- c) Enpresak erositako materialak bi kostu mota ditu: stocka erostean kostua eta mantentzearen kostua.
- d) Aurreko baieztapen guztiak okerrak dira.

**50. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, kontratuaren arduraduna:**

- a) Pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotua edo loturarik gabea.
- b) Entitate kontratatzaileak eskuordetzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, eta inoiz ere ez da izango harekin loturarik gabea.
- c) Pertsona fisikoa izan beharko da, erakunde kontratatzaileari lotua edo loturarik gabea.
- d) Pertsona juridikoa izan beharko du, erakunde kontratatzaileari lotua edo loturarik gabea.

## **ERRESERBAKO GALDERAK**

**51. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, kontratu mistoen adjudikazioa zer arauk gidatuko duten zehazteko, kontratu misto batek obra, hornidura edo zerbitzu kontratu biren edo gehiagoren berezko prestazioak biltzen ditunean, zein prestazioaren izaerari erreparatuko zaio?**

- a) Prestazio nagusiaren izaerari.
- b) Adjudikatzailerak hautatutako prestazioaren izaerari.
- c) Adjudikaziodunak hautatutako prestazioaren izaerari.
- d) Bigarren mailako prestazioaren izaerari.

**52. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, administrazio kontratuei eta kontratu pribatuei dagokienez:**

- a) Ezingo dira egon administrazio zuzenbideko araubide juridiko baten mende, baina bai zuzenbide pribatukoko araubide juridiko baten mende.
- b) Botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egindako kontratuak izango dira.
- c) Kontratu pribatutzat joko dira botere adjudikatzaileraren izaera ez duten sektore publikoko erakundeek egiten dituztenak.
- d) Administrazio kontratuak badira, zuzenbide pribatuko arauen bidez arautuko dira horiek prestatu eta adjudikatzeari dagokionez; eta haien ondorioei, aldaketari eta azkentzeari dagokienez, lege honen eta lege hau garatzeko xedapenen bidez; horien ordezeko moduan, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira.

**53. Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera, sektore publikoko erakundeek kontratuak egiteko erabiltzen dituzten agiriek, jada baldintza agirietan jasota ez badaude, honako hauek jaso beharko dituzte nahitaez:**

- a) Prezio zehatza; eta, horrekin batera, kontratazio organoak eta kontratatzaileak adostutako aldaketa proportzionala.
- b) Zer kasutan alda daitekeen, hala badagokio; eta zer kasutan suntsiaraziko den.
- c) Alderdien identifikazioa, kontratu txikien kasuan izan ezik; kasu horretan, nahikoa izango da alderdi kontratugilearen identifikazioa.
- d) Kontratua ez betetzeagatik aurreikusitako kalte-ordainak.

**54. Osasun jarduera bat beste jarduera arrunt batekin edo batzuekin batera egiten duten enpresei honako hauek aplikatuko zaizkie:**

- a) Jarduera bakoitzari dagozkion egokitzapen arauak.
- b) Ekitaldian negozio zifra garbi handiena lortzen duen jarduerari dagozkion egokitzapen arauak.
- c) Ekitaldian aktibo osoaren zifra handiena duen jarduerari dagozkion egokitzapen arauak.
- d) Ekitaldian etekin handienak lortzen dituen jarduerari dagozkion egokitzapen arauak.

**55. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. titulua: Jarduera publikoaren gardentasuna. I. kapitulua: Aplikazio eremu subjektiboa. Titulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zein erakunde eta entitate jotzen dira Administrazio publikotzat? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Zuzenbide publikoko korporazioak, administrazio zuzenbidearen mendeko jarduerari dagokienez.
- b) Merkataritza sozietateak, artikulua honetako entitateek 100eko 50eko baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- c) Fundazioen arloko legerian aurreikusitako sektore publikoko fundazioak.
- d) Estatuko Administrazio orokorra, autonomia erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako administrazioak, eta toki administrazioa osatzen duten erakundeak.

**56. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen konturako zenbatekoak ordaintzeko betebeharrak honako kasu hauetan baizik ez dira izango eraginkorrak:**

- a) Aurrekontuen betearazpenetik, epai judizial irmotik eta diruzaintzako eragiketetatik eratortzen direnean.
- b) Ordenamendu juridiko pribatuan xedatutakoaren arabera.
- c) Ordenamendu juridiko publikoan xedatutakoaren arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**57. Kontabilitateko egoera orrien analisisa. Likideziaren analisisa. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Enpresaren likideziaren osagai nagusia kapital ez korrontea da, «maniobra funts» ere esaten zaiona.
- b) Kapital ez korrontea kapital iraunkorren (ondare garbia gehi pasibo ez korrontea) eta aktibo ez korrontearen arteko aldea da.
- c) Likidezia aztertzearen helburua da ebaluatzea ea zer gaitasun duen enpresak epe luzerako ordainketa konpromisoei erantzuteko; gaitasun hori izateko, kapital nahikoa izan behar du une egokian.
- d) Kapital korrontea kapital iraunkorren (ondare garbia gehi pasibo ez korrontea) eta aktibo ez korrontearen arteko aldea da.



**58. Adierazi honako hauetatik zein den 2020ko pazientearen segurtasun-estrategiaren helburu orokorra, pazienteak zalantzarik gabe identifikatzeko ildo korporatiboan:**

- a) Dokumentazio klinikoaren identifikazio argia ziurtatzea.
- b) Profesionalek parte hartzeko eredia finkatzea.
- c) Pazienteak gaizki identifikatzeko arriskua murriztea.
- d) Pazienteak behar bezala identifikatzen direla ziurtatzea edozein jarduketa egin aurretik, bai ospitalizazioan, bai lehen mailako arretan.

**59. 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. Kontrol ekonomiko-fiskala. Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Kontrol ekonomiko-fiskala da kontrolatutako organoen eta erakundeen kontabilitateak eta informazio ekonomiko-finantzarioak haien finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoeraren irudi fidela islatzen dutela eta xedapen eta printzipio aplikagarrietara egokitzen direla egiaztatzea.
- b) Kontrol ekonomiko-fiskala da egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egokitzen dela hura osatzen duten erakunde, organo, zerbitzu eta unitateen jokabide ekonomiko finantzarioa arautzen duten xedapen eta jarraibideetara eta hura informatzen duten erregularutasun-, legezketasun-, eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioetara.
- c) Kontrol ekonomiko-fiskala laguntzen erabilera eta xede zuzenari buruzkoa da. Dena den, laguntzak onuradunaren finantzaketa nagusia dakarrenean, kontrolaren irismenak onuradunaren jarduera ekonomiko osoa barne hartu ahal izango du.
- d) Kontrol ekonomiko-fiskala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren, haren erakunde autonomoen eta sektore publikoko partzuergoen jarduera ekonomikoa fiskalizatzea, aplikagarri zaizkien xedapenak betetzen dituztela bermatzeko.

**60. Biltegiak. Biltegi bateko lan eremuak zein dira? Adieraz ezazu erantzun zuzena:**

- a) Salgaiak jasotzea, biltegiratzea, salgaiaren kontabilitate erregistroa egitea, eskaerak prestatzea eta bidaltzea.
- b) Salgaiak jasotzea, biltegiratzea, eskaerak prestatzea eta bidaltzea.
- c) Salgaiak jasotzea, biltegiratzea, salgaia fakturatzea, eskaerak prestatzea eta bidaltzea.
- d) Salgaiak jasotzea, biltegiratzea, salgaiak zaintzea, eskaerak prestatzea eta bidaltzea.